

HIRUGARREN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu.
- **2h 30 min.** dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

| Proben ezaugarriak | Aurreikusitako denbora | Puntuazioa (gehienez) | Puntuazioa (gutxienez) |
|---|------------------------|-----------------------|------------------------|
| <p>IRAKURMEN-PROBA</p> <p>Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. Testuen luzera guztira: 1.700 hitz gehienez.</p> | 50-60 min. | 20 | 10 |
| <p>IDAZMEN-PROBA</p> <p>Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz-kopurua bete. Eskatutako hitz-kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</p> | 90 min. | 30 | 15 |

- Azterketa-koaderno hau ez da jasoko, **zuzetzat da.**
- **Ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan** egin.
- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egin bertan jartzen duena.

3. HE

IRAKURMENA

■ 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ARTEA NORANAHIKOA DA

Erakusketak izaten dira jendeak artistaren lana ezagutzeko ohiko bidea; baina askotan ikusten ditugu artistak eta haien obrak erakusketa-aretoetatik kanpo, artea beste inguru batera eraman eta han txertatzen. Adibidez, hor dauzkagu Manu Muniategiandikoetxea Donostiako zubi bateko espaloiko harlauzetan, Koldobika Jauregi Donostiako Elgoibar kaleko Borobil etxean, Oier Villar Madrilgo Banco Santander de Negociosoren eraikinean...

Muniategiandikoetxearentzat ez dago funtsezko bereizketarik, erakusketak ere, azken finean, «galeriek egindako enkarguak» baitira. Badaki badirela beste modu batez jokatzeko duten artistak, baina, bere kasuan, behintzat, ideiak «hor» egoten dira, «saltsan», harik eta enkargu bat heltzen zaion arte, dela galeria batean erakusketa bat egiteko, dela bestelako proposamen bat. Berdin dio. «Galeria batean erakusketa egiteko lan egin edo galeriatik kanpoko enkargu baterako lan egin, hizkuntza eta mekanismo berberak erabiltzen ditut». Muniategiandikoetxearen obra guztiek «erlazio bat dute espazioarekin», eta galeria batean erakusketa egiteko lan egiten duenean galeriaren espaziora egokitu beharra du. Ezin du obra gauzatu, beraz, norako izango den jakin arte. Villarrek ere ez du eskultura «monolito gisa» ulertzen, «edozein lekutan funtziona dezakeen zerbait balitz bezala»; Muniategiandikoetxeak bezala, leku jakin baterako pentsatu eta gauzatzen du beti eskultura.

Behobia-Bilbo autobiderako eskultura lehiaketa irabazi eta obra saritua Aritzetako (Usurbil, Gipuzkoa) atsedeen-gunean kokatu zuenean jabetu zen horretaz Villar, 1992an. «Tailer handi batean egindako lana izan arren, oso jokabide ezberdina zuen eskulturak estudiotik atera eta autobidearen ondoan kokatutakoan. Horretaz ohartu eta gero, «leku jakin batera egokitutako eskulturak» egiten hasi zen, eta horretan jarraitzen du. Erakusketak ere egiten ditu, eskaintzen zaion lekura egokitutako obrarekin kasu guztietan, baina eraikinen barnealderako enkarguetara bideratu du batik bat bere eskultore lana.

Koldobika Jauregik, aldiz, ez du obra norako den jakin arte itxoiten hura egiten hasteko. «Nik, normalean, nahi dudana egiten dut, eta, gero, egindako hori galerien bidez erakutsi eta saldu», dio. Baina enkargu asko jasotzen ditu galerietatik aparte. «Udaletxeen, enpresa handien eta horrelakoen enkarguak iristen dira, eta horiei erantzuteko ez baldin badaukat ezer, neurri jakin bateko lana eskatzen dutelako-edo, orduan berariaz horretarako egiten dut lana». Ez du, ordea, edozein enkargu onartzen. «Enkarguak soilik onartzen ditut erabateko askatasuna ematen didatenean. Horretan ez dut kontzesiorik egiten. Kontzesioak egiten hasiz gero, sekula amaitzen ez den bide batean sartzen zara. Baina normalean niregana datorrenak badaki zer egiten dudana, eta ez da arazorik izaten».

Estudioan bere kabuz eta inoren enkarguari erantzun gabe egiten dituen lanak «ikerketa- eta esperimendazio-gunea» baino ez dira izaten Villarentzat, gero sor daitezkeen proiektuei begira. «Niri benetan gustatzen zaidana lana proiektuak dira, enkarguak. Eskala handian lan egiteko aukera ematen didatelako, aurrekontu batekin eta jendearekin. Publikoaren aurreko aktuzioa edo interakzioa sortzen delako, galeria batean ez bezala, galeria batera joaten den ikuslea ikusle hutsa baita. Obra publikoan, ikuslea ez da ikusle soila. Parte hartzen du eta bizi egiten du obra. Jokabide bat hartu behar du haren aurrean».

Arkitekturan egindako interbentzioak dira Villarren lanetako asko: sabaiak, atekak, bi espazioen arteko bereizketa egiteko hormak, aterpeak... Villarri ez lioke minik emango inork bere lana, artea dela esan ordez dekorazioa dela esango balio, ez baitaio hitz gutxiesgarria iruditzen, baina bera eskultore sentitzen da. «Nire lanak jendeari zerbait eragitea ere bilatzen du, intenzionalitate bat badago, sentipen bat sortzeko asmoa». Jauregik ere ez du zalantzan jartzen Borobil etxearen aurrealdea, sarreretako atekak eta eskaileretako eskulekuak bere eskultore lanak direla, galerietan erakutsitako edo leku publikoetan ezarritako edozein eskultura bezala. Edo antzerki lanen eszenatokiatarako egiten dituen lanak bezala.

Artista etiketa baten azpian sailkatu eta artistak beti gauza bat eta bera egiten duela uste izateko joera okerra dago zabaldua, Muniategiandikoetxearen ustez. «Jendeak pentsatzen du zuk gauza bakarra egiten dakizula, eta hori normalean ez da horrela izaten». Horretarako aukera dutenek ausartago jokatu eta enkargu gehiago egin behar lizkietete artistei, Muniategiandikoetxearen ustez, eta seguru dago artisten aldetik erantzun ona jasoko luketela. «Artistak lan egiteko modu bat du, tresna batzuk, hizkuntza bat, eta une jakin batean dago; ez dago orain dela zazpi urte zegoen leku berean. Jasotzen duen eskaerari, eskaera hori edozein delarik ere, une horri dagokion erantzuna ematen saiatuko da. Bertsolaria bezala, baina luzera».

ZABALA, J.L. Berria. 2011ko urtarrila. Egokitua

1. **Zer alde dago Muniategiandikoetxearentzat erakusketetako eta erakusketetatik kanpoko lanen artean?**
 - a) Erakusketak galeriek egindako enkarguak dira eta bakoitzerako desberdin jokatzen du.
 - b) Ez dago alderik, biak berdin lantzen ditu, zer norako den bereizi gabe.
 - c) Desberdin lantzen ditu biak, artista gisa bizi duen unea aintzat harturik.
2. **Muniategiandikoetxearentzat eta Villarrentzat, nolako harremana daukate eskulturak eta inguruko espazioak?**
 - a) Eskultoreak nahitaez bermatu behar du bien arteko etengabeko elkarreragina.
 - b) Eskulturak egiten direnean, hainbat lekutan funtzionatzeko moduan sortu behar dira.
 - c) Eskultura egin aurretik, aintzat hartu behar da inguruko espazioa.
3. **Nolako lanak egin ditu, batik bat, Villarrek?**
 - a) Atari zabalean jartzeko eskultura-lan handiak.
 - b) Orogen gainetik, erakusketak egiten ditu arte-galerietan.
 - c) Eraikinen barrualdeetan jartzeko lanak.
4. **Noiz hasten da lanean Koldobika Jauregi?**
 - a) Ez da zain egoten enkarguak noiz iritsiko, bere erritmoan egiten du lan.
 - b) Galerietatik eskariak egiten dizkiotenean hasten da lanean, xehetasunak jakindakoan.
 - c) Udaletxeen, enpresa handien eta horrelakoen enkarguak jasotzen dituenean.
5. **Zer baldintza jartzen du lanerako Koldobika Jauregik?**
 - a) Ez du inolako baldintzarik onartzen eta berak nahi bezalako lana egiten du.
 - b) Lana enkargatzen duenak aurretik bere lana ezagutzea.
 - c) Epe zurrunegi edo estua ez jartzea lana entregatzeko.
6. **Zer abantaila daukate Villarrentzat eskala handian egindako proiektuek?**
 - a) Ikerketa- eta esperimentazio-gunea izatea, benetan interesatzen zaion lana gauzatzeko.
 - b) Publikoarekin elkarreragina sortzeko aukera, galerietan ez bezala.
 - c) Aurrekontu itxi baten barruan lan egin eta dirua irabazteko aukera.
7. **Zer lortu nahi du Villarrek arkitekturan egindako interbentzioekin?**
 - a) Eraikinek bizi, pertsonalitate eta izaera propioa izatea.
 - b) Jendeak ez dezala ikusi dekoratzaile gisa, eskultore gisa baizik.
 - c) Jendearengan zerbait sortzea, sentimendu bat eragitea.
8. **Zer dio Muniategiandikoetxeak artistaren lanaren gainean?**
 - a) Etengabeko bilakaera izaten dela eta hori ulertzea kostatu egiten zaiola jendeari.
 - b) Instituzioek enkargu gutxi egiten dizkietela artistei, eta gehiago eginez gero, ez litzaiekeela damutuko.
 - c) Bertsolarien lanaren aldean, eskultorearena nekagarriagoa dela.

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN

3. HE

IRAKURMENA

■ 2. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu-zatiak.

Sartu **testu zatia** dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

DROGAK ETA KONTSUMOA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak drogen kontsumoari buruzko datuak kaleratu ditu eta emaitzak, oro har, esan beharra dago pozik egoteko modukoak izan direla. Osasun Sailak dioenez, azken urteetan erdira jaitsi da legez kanpoko drogen kontsumoa Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan; datuotarako, kokainaren, anfetaminen eta kalamuaren kontsumoa hartu du aintzat. Legezko drogen kontsumoak ere behera egin du, alkohola kontuan harturik, eta beherakada, batez ere, bistakoa da gazteen artean. **1** Baikor da, hala ere, Osasun Saila: «Datuak aldekoak dira, oso onak dira», esan du Jesus Maria Fernandez sailburuordeak, prentsaren aurreko agerraldian.

Bi urtean behin ohi duenez, drogei buruzko ikerketa bat egin du Jaurlaritzak, eta prentsaren aurrean aurkeztu zituenak iazko datuak dira. Kontsumoa ez ezik, herritarrek drogen inguruan duten ikuskera ere aztertzen du. **2** Gainerako drogekiko ezinikusia areagotu egin dela dio Jaurlaritzak, baina inguruko herrialdeetan baino txikiagoa dela.

Kontsumoari dagokionez, legez kanpoko drogetan nabaritu du gehien jaitsiera. 2004ko datuekin alderatu ditu oraingoak, eta elkarren ondoan jarrita, nabaria da aldea: kokaina lehengo erdia hartzen dute herritarrek; anfetaminen kontsumoa % 60 jaitsi da; eta kalamuaren kontsumoa azken urteetako baxuena da –orain lau urte baino 63.000 gutxiagok erretzen dute, eta gazteen artean are nabariagoa da beherakada–. **3**

Azaldu duenez, alkoholaren kontsumoan ez da hain nabaria beherakada. Gehiegikeriak gutxitzea izan da adierazgarriena, datuei begiratuta: 34 urte baino gutxiagokoen artean, hirutik batek onartu du urtean behin, behintzat, mozkortu egin dela –2004an erdiek baino

gehiagok adierazi zuten–; zaharragoen artean, berriz, % 13 dira hori aitortu dutenak (lehen, lautik bat zen).

4 15 eta 19 urte arteko gazteei dagokienez, hamarretik seik diote ez dutela alkoholik edaten, edo oso gutxi edaten dutela. Asteburuetako kontsumoarekin lotu ohi da gazteena, eta behera egin du horrek ere: gehiegi edaten duten gazteen kopuruak erdira egin du sei urtean –% 17 dira orain; lehen, berriz, % 34–. **5** Eragin baikorra du horrek, Eusko Jaurlaritzako Droga-menpekotasunaren zuzendari Celina Peredaren iritziz, behintzat: «Lehengo aldean, ezezagunekin borroka gutxiago izaten dituzte gazteek, eta babesik gabeko sexu-harreman gutxiago izaten dituzte». Sailburuordea ere baikor agertu da datuen aurrean: «Osasuna zaintzeko ardura dutela erakutsi dute herritarrek», adierazi du.

Baikor bai, baina tabakoak jarri dio ke beltza ikerketari eta ilundu egin ditu, nolabait, emaitzak. **6** Jaurlaritzak gorai patu egin du erretzeari uzten diotenak gero eta gehiago direla, erretzaileek gero eta gutxiagotan erretzen dutela eta erdiak, gainera, prest daudela uzteko. Baina, ez, kopurua ez da jaitsi, bere horretan eusten dio mailari, azken urteetan erakundeek eginahalak eta bi egin badituzte ere ahalik eta erretzaile gutxien izan daitezten. Beharbada, kanpainak ez dira aski izan. **7**

**GOIKOETXEA, G. Berria. 2011ko apirila
 Egokitua**

3. HE

IRAKURMENA

■ 2. ariketa. Txertatu testu zatiak.

- A. Hala ere, bere lekuan jarri du egoera Jaurlaritzak: Europako Batasuneko datuekin alderatuta, buru-buruan dago EAE kalamuaren kontsumoaren datuei begiratuta.
- B. Azken bi urteotan ez da jaitsi erretzaileen kopurua.
- C. Salbuespena, tabakoa da; izan ere, debekatzeko legeak egin eta onartu dituzte, baina lehengoan dago kontsumoa, ez du behera egin.
- D. Taldean elkartu eta kalean ere gutxiagok edaten dute alkohola: % 37 ziren lehen; orain, berriz, % 33.
- E. Gizartean oso errotuta dago, eta ez dakigu benetan zer den tabakoa. Gaztetandik hasten dira zigarroak pizten, 16,7 urterekin, batez beste.
- F. Krisiak ere izan dezake eraginik honetan guztian, kontsumitzeko ahalmen gutxiago izateak, ezinbestean, kontsumoa txikitzea dakar.
- G. Droga guztietatik, alkoholak dauka babesik handiena: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarren artean, hamarretik lauk uste dute droga horren kontsumoa ez dela larria –gazteen artean erdia da kopuru hori–.
- H. Gazteen artean izaten ari dira aldaketa gehien eta nabarmenenak.

Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

| | | | | | | | |
|---------------------|----------|----------|----------|----------|----------|----------|----------|
| Hutsuneak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| Testu zatiak | | | | | | | |
| | | | | | | | |

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN

3. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

HAUTS ZURIA Eguneroko dosia

Lehen azukre beltza erosten saiatzen nintzen, osasunarentzako hobea zelakoan. Halako batean, horri buruzko informazioa bilatzeko gogoia etorri zitzaidan, eta halaxe egin nuen. Ez nuen asko saiatu behar izan urteetan inozoarena egiten egon naizela ikusteko. Elikadura osasuntsuago baten alde azukre beltza kontsumitzen ari diren guztiak bezalaxe.

Nahiz eta jatorria naturan izan (kanabera edo erremolatxan), ezin dugu esan azukrea produktu naturala denik. Jatorrizko landareak prozesu industrial gogorra jasan behar izaten du berez duen sakarosa isolatzeko. Hortik irteten den produktuak drogaren ezaugarri gehiago ditu elikagai batenak baino: dietetikoki ez du inolako baliorik, azukreak ez digu ezelako onurarik ekartzen (eragin psikotropiko edo euforizantea ezin dugu efektu ontzat hartu); ondorio kaltegarriak, berriz, asko dira (izugarri loditzen du, diabetearen eragile nagusia da, dependentzia, desoreka emozionalak eta hagnetako arazoak sortzen ditu...). Horri buruz ez naiz gehiago luzatuko, informazioa nonahi aurki baitaiteke gaur egun. Horren orde, azukre beltzaren auzia hartu nahiko nuke hizpide, xelebrea baita benetan.

Lehen esan dudan ekoizpen industrialean zehar, jatorrizko landarearen patsak prozesu luzea igarotzen du, besteak beste ikatza, sufrea, zuritzaile kimikoak eta karbono dioxidoa erabilita. Zukua behin eta berriro egosten dute, ura galdu eta sakarosa kontzentratzeko. Pausorik pauso, hasieran azukre puruena aterako da (zuria, %99 sakarosa); ondoren, zukua atzera prozesatu eta hondakinek koloretzatutako azukre pobreagoa lortzen dute (%97 sakarosa). Prozesua errepikatu ahala, azukre gero eta beltzagoa irteten da, gutxi gorabehera %94ko sakarosa mailara heldu arte. Geratzen den zukuari melaza esaten zaio, eta ezin izaten zaio sakarosa gehiagorik atera.

Ulertuko duzuen modura, azukre beltzak ez du oraintsu arte estimazio handirik izan: sakarosa

puruena erosterik ez zutenei zuzendutako hondakina baino ez zen. Eta melaza, esate baterako, erregaiak egiteko edo ganadua loditzeko erabili izan da. Azken urteetan, berriz, modu harrigarrian agertu zaizkigu bai bata bai bestea, non eta... produktu natural eta ekologikoen dendetan! Eta ez merke, horregatik!

Gaitza egiten zait azaldutakoa zergatik gertatu den ulertzea, eta esango nuke txarto-ulertu baten ondorioa dela. Beharbada, arroz osoa, ogi integrala eta paper birziklatua ilunagoak direla ikusirik, jendeak paralelismoa egin eta azukre beltzak ere hobea izan behar duela ondorioztatu duelako? Iguar bai. Arrazoa edozein dela ere, honakoa garbi dago: azukre-ekoizleak pozarren daude eta ez dute zirkinik egingo gure nahaste-borrastea argitzeko!

Behin orain artekoak esanda, zein jarraibide hartu? Kontuan har dezagun azukrea gure eguneroko bizitzan erabat sartuta dagoela aspaldi, eta ez gozokietan bakarrik: kontserbetan, ogian, prestatuta erosten den jatekoan, edarietan... Droga indartsu hau erabiltzea guztiz ohikoa da produktuak erakargarriago bihurtzeko. Lehenengo pausoa, horretara, erosten ditugun produktuen etiketak irakurtzea izango da; ondo begiratzea, azukrea dutenak baztertzeko. Etxean jatekoa prestatzerakoan ere, ez dago azukrearen beharrik: ezta erabil dezakegu (tomate frijituan, gozokietan, edarietan...), baita fruta-pasak edo egosiak ere (gosarian, postreetan...). Eta horiekin nahikoa ez duenak, ordeko gozagarri-sorta zabala du merkatuan, azukrea bera baino indartsuagoak eta haren eragin kaltegarri bakoak.

Hala ere, ez obsesionatu, oso gaitza da-eta azukrearen erabilpena zerora jaitea. Baina egunero 40 gramo hartzetik 20 gramora jaitzita ere, alde handia igarriko diozue. Zorte on desengantxatze-prozesuan!

GOROSABEL, Oier. Gaur8. 2011ko apirila

3. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa. Aukeratu erantzuna.

1. **Zer egiten ari dira azukre beltza erosten dutenak?**
 - a) Osasunari mesede.
 - b) Elikadura osasuntsuago baten aldeko urratsak.
 - c) Inozoarena.
2. **Zer da azukrea?**
 - a) Prozesu industrial gogorra jasan duen produktua da.
 - b) Azukrea produktu naturala da, kanaberatik edo erremolatxatik eratorria.
 - c) Azukrea droga baino ez da.
3. **Zer ondorio du azukrea hartzeak?**
 - a) Apenas duen ondorio onik.
 - b) Ondorio kaltegarriak baino ez ditu.
 - c) Euforia baino ez digu eragiten.
4. **Zergatik da pobreagoa azukre beltza?**
 - a) Zukutze-prozesuen ondorioz, produktu kaltegarri guztiak atera dizkiotelako.
 - b) Hainbat zukutze-prozesu jasan behar izan duelako eta osagai onenak kendu dizkiotelako.
 - c) Sakarosa baino utzi ez dioten produktua delako.
5. **Zein izan da azukre beltzaren bilakaera?**
 - a) Hasierako tokian mantendu da, pobreenei zuzendutako produktua zen eta gaur egun ere halakoxea da.
 - b) Aberatsenei zuzendutako produktua izatetik pobreenei zuzendutako produktua izatera pasatu da.
 - c) Azukre beltza, oker bada ere, kolore ilunagoko produktu osasuntsuagoekin lotu da eta zuria baino osasungarriagozat jo.
6. **Zer da ulergaitza artikuluegilearen ustez?**
 - a) Azukrearen onurez jendea informatzea.
 - b) Azukre beltzak egin duen bidea.
 - c) Azukre beltzak nola ez daukan estimazio handiagorik.
7. **Zergatik daude pozik azukre-ekoizleak?**
 - a) Jendeak azukre beltzarena iruzurra dela jakin arren, ez duelako ezertxo ere egiten.
 - b) Jendea azukre beltzaren “gezurraz” konturatu delako.
 - c) Jendeak azukre beltza erosten duelako.
8. **Zertarako erabiltzen da azukrea produktuetan?**
 - a) Etxeko jakiak errazago eta egokiago prestatzeko.
 - b) Gure dietaren berezko gabeziak orekatzea.
 - c) Produktuak gustagarriago egiteko.
9. **Zer aurkituko dugu merkatuan azukrea ordezkatzeko?**
 - a) Azukreaz bestelako produktu gozagarri batzuk.
 - b) Azukrea bezain kaltegarriak diren beste produktu batzuk.
 - c) Eztia erabiltzeko moduen azalpenak.
10. **Zein mezu bidaltzen digu artikulua egileak amaieran?**
 - a) 20 gramo azukre hartzeak mesede egingo digula.
 - b) Azukrearen kontsumoa erdira ekartzeak onurak ekarriko dizkigula.
 - c) Azukrea gure dietatik desagerraraztea oso gaitza izanagatik, ahalegindu egin behar dugula.

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN

Oharrak:

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun,
 - ideiak garbi adierazi dituzun,
 - euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.

ARIKETAK, HORRETA RAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN EGIN BEHAR DITUZU.

■ **1. ariketa**

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** egin behar duzu.

Gutxienez 180 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Laneko jardunaldi batzuetan hartu berri duzu parte, kanpoan. Gai mamitsuak lantzeaz gain, oso jende interesgarria ezagutu duzu eta harreman ugari egin dituzu. Ezagutu duzun pertsonetako batek gonbidatu egin zaitu euren esperientzia gertutik ezagutzera eta pare bat egun pasatzera.

Idatz iezaiozu eskutitza zuzendariari, hori guztia xehetasunez azaltzeko eta joateko baimena eskatzeko.

■ **2. ariketa: Iritzi-artikulua herriko aldizkarirako**

- Egoera kontuan hartu eta gaiari buruz daukazun iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- Gutxienez 180 hitz idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

Egoera: Alabak/semekak dirua eskatu dizu lagunaren artean alokatu nahi duten lokalaren errentarako. Lehengo batean asteburua kanpoan igarotzeko baimena eskatu zizun. Bihar-etzi zer izango ote da? Zertan ematen dute denbora gazteek?

Arazoari buruz idaztea pentsatu duzu.

Gaia: GURE GAZTEEN AISIALDIA



Gazteek gauza asko egiten dituzte aisialdian. Gehien gustatzen zaiena lagunekin elkartu edo egotea da, eta musika entzutea, telebista ikustea, tabernetara joatea...

Ez da adin erraza izaten, ez ume eta ez heldu, gauza batzuetarako helduegi eta beste batzuetarako gazteegi.

Ezjakintasun handia dugu helduok zer eskain diezaiekegun, nola asmatu; ahaleginak egiten ditugu, baina formula magikorik ez dago, ez da erraza asmatzen.

Gaur egun gure gizartean nagusi da kontsumismoan oinarritutako aisialdia, eta gazteei beste era batekoa eskaini beharko genieke, partaidetzan oinarritua, eta behar bezalako ekipamenduak eman, bertako programazio, garapen eta kudeaketan gaztetxoek beraiek esku hartuta.



- Zer egiten dute gazteek aisialdian?
- Zenbateko aisialdia geratzen zaie (ikasketak, kirolak, eskola partikularrak...)?
- Nola lagun diezaiekegu zoriontsu izaten?
- Zenbateraino egiten dute bat gazteek nahi dutenak eta eman diezaiekegunak?

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

3. HE / IRAKURMENA

ERANTZUN ZUZENAK

- 1. ariketa: Aukera anitzeko galderak
- Irakurgaia: «ARTEA NORANAHIKOA DA»

| | | | |
|----|---|----|---|
| 1. | B | 5. | A |
| 2. | C | 6. | B |
| 3. | C | 7. | C |
| 4. | A | 8. | A |

- 2. ariketa: Sartu testu zatia dagokion hutsunean
- Irakurgaia: «DROGAK ETA KONTSUMOA»

| | | | | | | | |
|--------------|---|---|---|---|---|---|---|
| Hutsuneak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| Testu zatiak | C | G | A | H | D | B | E |

F aukera sobera dago

- 3. ariketa: Aukera anitzeko galderak
- Irakurgaia: «HAUTS ZURIA. Eguneroko dosia»

| | | | |
|----|---|-----|---|
| 1. | C | 6. | B |
| 2. | A | 7. | C |
| 3. | A | 8. | C |
| 4. | B | 9. | A |
| 5. | C | 10. | B |